



Memoria historikoa 1936KO GERRA

M A H A I - I N G U R U A

■ MIKEL ARANA ■ IÑAKI EGAÑA ■ IÑAKI GOIOGANA

I R I T Z I A K

- Pedro Barruso
- Josu Chueca
- Xabier Lasa

Nola azaleratu 36an estalitakoa?

■ Urko Apaolaza • Xabier Letona
Argazkiak: Dani Blanco

Duela urte batzuk Bierzon (Leon), 1936ko Gerran lurperatuak izan ziren hainbat pertsonen gorpuzkinak azaleratu zituzten. Aurkikuntza horien ostean zabaldu zen, batez ere, Memoria Historikoaren kontzeptua. Euskal Herrian ekitaldi ugari sortu dira gerran fusilatutakoen oroimena berreskuratzeko. Aldi berean, preso egon zirenen edo zigorrak jasan zituztenen aldeko ekimenak sortu dira. Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emateko dekretua plazaratu zuen eta eztabaida bizia izan da erakunde horren eta gerrako biktimen elkarteen artean. Gauza bera gertatu da Espainiako Gobernuak sustatutako Memoria Historikoaren Legearekin. Zergatik eztabaida horiek? Zerk sortzen du horrelako interesa? Nola azaleratu daiteke 36an estalitakoa? Galdera horiei guztiei erantzuteko hainbat adituk osatutako mahai-ingurua antolatu dugu.

Azken urteetan asko hitz egin da memoria historikoaren izenean. Baina lehenik komeniko litzateke definitzea zer den memoria historikoa. Nola ulertzen duzue zuek termino hori? Zer dakar berarekin?

IÑAKI EGAÑA. Askotan lotzen dugu memoria historikoa azken urteetako gertaerekin. Nik esango nuke, memoria historikoa ere badela Prailehaitz eta garai haietako gure arbasoen bizitza, edo karlistena... gizarte osoarena da memoria historikoa, ez zati batena bakarrik. Hitz gutxitan esan daiteke fisikoa ez den gure ondarea dela.

IÑAKI GOIOGANA. Pertsonak zerbait bereizten bagaitu animaliangandik memoria da, iragan guztia, eta hori hurrengo belaunaldiei pasa behar zaie, ondare bat izaten jarraituko badu. Gaur egunean hitz hori

gerra kontuetara mugaturik erabiltzen da, baina zabalagoa da, iragan guztia hurrengo belaunaldiei pasatzeko daukagun kontu bat. Zelan egiten den? Hobeto egin behar litzatekeela? Seguru baietz. Memoria historikoa ez da artxibo batean gordetzen diren paperak bakarrik, edo museo batean gorde daitezkeen harriak... Adibidez, gaur egun galtzen ari den memoria historikoa Neolitotik datorren nekazal kultura da, hori ia galdu da eta horretaz inork ez du egiten barbarik.

MIKEL ARANA. Honelako azterketa sakonekin has-tea zaila izaten da... Ez dut nik orain arte esandakoaren batere kontrakorik esango, baina bai egia dela memoria historikoaren gure hausnarketa Gerra Zibiletik aurrera hasten dela. Egia da memoria historikoa izan daitekeela denboren hasieratik datorren zerbait, baina nik uste dut orokorrean jendeari datorkiona memoria historikoari buruz hitz egiterakoan Gerra Zibilari buruz gertatutakoa dela. Beraz nik, segur aski,



Ezkerretetik eskuinera, Iñaki Egaña, Iñaki Goiogana eta Mikel Arana.

hor kokatuko nuke memoria historikoari ematen diogun esanahia. Guk egin dugun hausnarketa izan da historia beti idazten duela irabazten duenak eta urte askotan zehar herri honetan gertatutako gauza asko kontatu izan dela ikuspuntu batetik; hori ere memoria historikoaren parte bada, baina parte bat bakarrik, eta kasu askotan gezurrez betetakoa. Nik uste dut ahalegina egin behar dugula urte guzti horiek bete ahal izateko benetan gertatu zenarekin.

I. GOIOGANA. Honera etorri bagara, horretaz berba egitera da. Baina nik esan baditut esan ditudanak dira, hori bazterrean utzi barik, memoria historikoak izan behar duen esanahia handiagoa delako. Memoria historikoa diogunean kontuan hartu behar dugu, teorian bada ere, zabalagoa dela.

I. EGAÑA. Gaur egun, gainera, errebisionismo bat badago zerbaitengatik da. Errebisionismoa memoria

historikoaren kontrako ibilbide bat da nire ustez, eta ez dio eragiten 1936ko Gerrari bakarrik, baizik eta gure historiako zenbait pasarteri, Nafarroako konkistari, Karlistadei... Orain Iruña-Veleiako kontuekin uholde bat egon da eta iritzi zientifikoak daude alde batetik, baina baita bestelako iritzi politikoak ere, gaur egungo politikarekin lotuta daudenak. Horrekin esan nahi dut, memoria historikoaz hitz egiten denean badagoela alde bat orain dela 70 urte gertatutakoarekin lotua, baina aurreko garaiei loturiko beste kontu asko ere badaudela.

Aipatu duzue zer den eta nola ulertzen duzuen... Baina zergatik da horren inportantea memoria historikoa? Eta nola erabili behar da?

I. EGAÑA. Ni oso laburra izango naiz. Ramon Jauregik Memoria Historikoaren Lege-proiektuari buruzko

iritzi artikulu batean esaten zuen memoria historikoa gauza partikularra dela eta ni horren guztiz kontrakoa naiz. Nik uste dut partikularra badela baina, berez, memoria historikoa kolektiboa da; azken batean ni gizarte batean bizi naizelako, eta ni baina lehenago beste batzuk, nire gurasoak edo nire aiton-amonak. Herri honen kohesiorako memoria historikoa funtsezkoa da... Hasiko ginatke eztabaida sakon batean, baina gaur egungo arazo politikoen atzean memoria historikoaren erabilpena eta hutsunea daude.

I. GOIOGANA. Memoria historikoak garrantzia badauka ez da bakarrik hori aldarrikatzen dutenak daudelako, baizik hori bakean utzi behar dela diotenak daudelako. Esan nahi dut, ez baluke garrantzirik, historiari ez litzateke emango eskoletan eta ez litzateke sortuko horrelako iskanbilarik eskola curriculumarekin... Lehen esan dudan legez, gu ezer bagara gogoratzen dugulako da, iraganetik datorren kultura bat dugu, berregiten dihardugun gauza bat, eta azken batean memoria historikoa aldarrikatzen dugunean orain arte esan izan dena gustuko ez dugulako da.

M. ARANA. Arazoa da historia ez dela molekula bezala, molekulak interpretazio tekniko bat daukate, gertatzen dena da historia zerbait irekia dela, bakoitzaren oroitzapenekin lotua, eta gero, indibiduotik kolektibitatera pasatzen dena, historia orokor bakarra osatuz. Baina historia orokor hori ez da bat izan, denen artean sortu dugun zerbait baizik. Nik uste garrantzitsua dela jakitea zer gertatu zen, ahal den neurrian, ikuspuntu batetik eta bestetik, eta horietatik guztietatik bakoitzak bere teoria propioa egitea, bere barnerako.

Normalean memoria historikoa 1936ko Gerrarekin lotzen dela esan duzue. Baina aspaldi honetan ere hasiak gara aldarrikatzen gertuagoko gertakizunen inguruko memoria historikoa, dela gerra ostea, dela trantsizioa... Ez dago, nolabait esateko, arriskurik bata bestearekin gainjartzeko? Bata oraindik berreskuratu gabe dugunean, bestearekin hasteko?

M a h a i k i d e a k

■ MIKEL ARANA



Politikaria, zuzenbidean lizentziatua

1973ko urrian jaio zen Ordizian (Gipuzkoa). Zuzenbidean lizentziatua da. Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Saileko Zerbitzu Zuzendaria da. Administrazioako jarduerak politikarekin uztartzen du, Ezker Batua-Berdeak alderdiko Presidentziako Bozeramailea ere baita Mikel Arana.

■ IÑAKI EGAÑA



Idazlea, ikerlaria eta editorea

1958an jaio tako donostiarra: Idazlea, ikerlaria eta editorea da, eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kide ere bada. 1936ko Gerraren inguruko hainbat liburu idatzi ditu, azkenekoa: *1936ko gerra zibila haurrei kontatua*. Zenbait egunkaritan iritzi artikulugile ohikoa; gaur egun hainbat indusketa arkeologiko egiten dihardu eta Alcala de Henaresko administrazioaren artxiboan sartzeko baimenaren zain dago.

I. EGAÑA. Arriskua beti egongo da, baina nik uste dut arriskua ez dela erabili behar zentzu peioratiboa. Egia da momentu honetan indar gehiago duela gerrako historiaren hausnarketak, baina hori niretzako ulergarria da. Alde batetik gerra garaiko memoria historikoa orain arte irabazleena izan da eta orain erakunde eta elkarte askotatik ahaleginak egiten dira ezkutuan egon diren gauzak azaleratzeko. Bestetik, trantsizio garaia inguruan oraindik perspektiba gutxi daukagu hausnartzen hasteko eta nire ustez trantsizioa zenbait adar oraindik indarrean daude, are gehiago, esango nuke oraindik trantsizioa sufritzen ari garela neurri batean, hori ez dut nik esaten baizik eta politikariek. Trantsizioa hor dago eta nik uste dut garaia iritsiko dela hori sakonago hausnartzeko, baina oraindik perspektiba gutxi dugu.

I. GOIOGANA. Arriskua? Bada jende bat deseroso sentitzen dena gerrako kontuez hitz egitean, eta orduan, egiten duena da beste gai bat atera hori estaltzeko. Hasi dira ETaren biktimak mahai gainean jartzen, edo Iruñean gertatu zena, adibidez, German Rodriguezen omenezko monolitoa kendu eta entzie-

roen gaineko bat jarri zuten. Iruñean egongo da leku gehiago monumentu bat jartzeko, justu leku horretan jarri behar da? Hori ere bada memoria historikoari eraso egitea!

I. EGAÑA. Nik uste dut memoria historikoa tresna erasotzaile bezala erabiltzen dela, hori oso argi dago...

I. GOIOGANA. Bai, erabiltzen da arma modura, baina aldarrikatzen denean memoria bat, iragana ikusteko modu bat, horri aurre egitea esanez "kontxo, hori aspaldiko kontuak dira, ez ezazu hori mugitu, denok dauzkagu hildakoak hor...", azken batean egin nahi dena da gauzak estaltzea.

M. ARANA. Nik ere uste dut oraindik ez dugula perspektiba nahikorik jakiteko trantsizioak zer suposatuko duen. Baina kontutan izanez gero trantsizio hori egin zuten guztiak oraindik politika aktiboan daudela, oraindik denbora pasako da ikusteko trantsizioa zer izan zen. Askotan, trantsizio horren protagonista izan zirenak, prozesu guzti horretaz bereziki arto azaltzen dira, beti adibide bezala jartzen dute, eta niri iruditzen zait oraindik badaudela zenbait gauza egiteko. Gainera, badaude zenbait sektore berri ere trantsizio aurreko aldarrikapenak mahai gainean jartzen hasi direnak... Argi dagoena da oraindik ez dela denbora nahikoa pasatu trantsizioari buruzko memoria historikoaz hitz egiteko.

I. EGAÑA. Kontua da trantsizioa egin dutela batzuek, baina beste batzuek ez dutela egin; bake prozesuarekin hori bistakoa da: eliza, armada...

M. ARANA. Arazo nagusienetako bat izan zen ejertzitoaren inguruan ez zela batere erreforma sakonik egin...

I. GOIOGANA. ...trantsizioa egiteko baldintzetako bat izan zelako. Baina bestearekin jarraituz, hemen 30 urtera trantsizioaz idatziko diren liburuak ez dira izango guk geuk orain idatziko genituzkeen modukoak. Horrek ez du esan nahi ez ditugunik idatzi behar, guk gure ikuspegia izango dugu.

Kapitulu honekin amaitzeko. Memoria historikoa baldin bada zerbait kolek-

■ IÑAKI GOIOGANA



Artxibo teknikaria

Iñaki Goigana 1962ko uztailean jaio zen Gernikan (Bizkaia). Duela hamar urtetik Artean (Bizkaia) dagoen Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Agiritegiko artxibo teknikaria da. Lehenago beste zenbait udal artxibotan ere aritu izan da. Gregorio Arrienekin *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939* argitaratu zuen eta Iñaki Bernardorekin *Galindez: La tumba abierta*.



KUTXA FOTOTEKA

tiboa, esan duzuen moduan, zer gertatzen da herri batean kolektibitate ezberdinak daudenean eta kolektibitate horien memoriak talka egiten duenean?

I. EGAÑA. Nik esaldi bateko erantzuna emango nizuke: Gizarte horien subjektu guztiak onartu behar dira.

I. GOIOGANA. Hori da entsalada baten modukoa. Esan nahi dut, hasten bazara bereizten tomatea, letxuga... ezberdinak dira, baina batzen badituzu osotasun bat sortzen da. Hau da, gizarte pertsona bakanez osatutako kolektibo bat da, letxuga gehiago sartzen baduzu berdea izango da entsalada hori eta tomate gehiago sartuz gero gorriagoa. Ez da berdina guk daukagun memoria historikoa edo orain dela 50 urte izan zutena. Eta adibide bat jarriko dut horretarako: Gaur egun elizara zenbat jende joango da? Bada, orain dela 50 urte baino askoz ere gutxiago. Horrek mugatzen du memoria kolektiboa, onerako edo txarrerako. Norbanakoak gara, baina multzo bat osatzen dugu eta zeintzuk norbanakok osatzen duten multzo hori eta nola pentsa-

tzen duten momentu batean, entsalada hori kolore batekoa edo bestekoa izango da.

M. ARANA. Denen arteko zerbait eraiki behar da, eta bakoitzak izango du bere iritzia zenbait gertakizunen inguruan, baina nik uste garrantzitsua dela denen iritzia kontuan hartzea eta ikuspuntu ezberdinak mahai gainean jartzea deskribapen bat egiteko, bestela pentsamendu bakarrera joango ginateke.

I. GOIOGANA. Ados nago horrekin, gerra bat gertatu zen eta horrek dauzka milioi bat ikuspegi, zenbat pertsona hainbeste ikuspegi atera daitezke hor. Nik uste dut objektibotasunik ez dela egongo, baina bai zintzotasuna, lortu behar da nork bere egia esateko modua izan dezagula.

I. EGAÑA. Nik kritika bat egin nahi nuke. Askotan euskal gizarteak ez dugu bere osotasunean onartzen, nahiz eta Mikelek esan duen bezala, pentsamendu bakarraren aurka egon. Horregatik izan da nire erantzuna hain laburra hasieran. Uste dut beste toki

“Gerra bat gertatu zen eta zenbat pertsona hainbeste ikuspegi atera daitezke hor.

Objektibotasunik ez da egongo, baina bai zintzotasuna, lortu behar da nork bere egia esateko modua izan dezagula”

IÑAKI GOIOGANA

batzuetan hobeto egiten dutela, eta adibide batzuk jarriko ditut. Bigarren Mundu Gerraren inguruan Frantzia egin diren hausnarketak eta irakurketak, edo Katalunian, esate baterako, artxibo historikoen zutabeak jarri zituztenean eta abar. Alde horretatik oso atzeratuak gaude.

I. GOIOGANA. Herrialde horietan ere egin dira gauzak oker... Nik beti gogoratzen dut kontu bat. Agiri bat daukagu Arteako artxiboan, gutun batzuk dira, Frantziako elkarte batenak. Elkarte hori sortu zen Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gero, eta bere izena zen “Alemaniaren eta Vichyko Frantziaren Biktimak”; ez ziren nazien eta Frantziaren biktimak! Horrelako gauzak edonon egin dira...

1936ko Gerrarekin sartuko gara. Haste-ko behintzat, zer iritzi duzue Espainiako Gobernuak egin berri duen Memoria Historikoari buruzko Legearen aurreproiektuaz?

I. EGAÑA. Nik uste dut iraganari beldurra diotela, hori nabarmena da. Eta puntuz puntu joango bagina... Aurreproiektuaren eztabaidan PSOE izan ezik beste alderdi guztiak aurka egon ziren, PPrena guztiz jakina zen, baina besteena... Horrek zerbait esan nahi du. Porrot egiten du artxiboen kontuetan, biktimez hitz egiten duenean, garaiko epaiketen inguruan, eta abar. Borobiltzeko, ni ez nago batere ados ikurren kontuekin egiten den erabilpenarekin, zehazki esate-

ko, Salamancako kontuarekin eta Valle de los Caídos delakoarekin. Nik uste dut hanka sartu dutela. Zergatik? Eskuina oso indartsua da oraindik eta neurri batean sozialistek iraganari beldurra diote.

I. GOIOGANA. Iruditzen zait behartuta bezala egin dutela egin dutena eta denak kontentatu nahian, inor kontentatu gabe geratu direla. Eduki dezakeen gauzarik onena da 30 urte pasa ondoren zerbait egiten hasi direla, baina zerbait hori ez bada inoren gustuko, ez dakit zenbateraino balio duen.

M. ARANA. Ez du ezertarako balio, eta are gutxiago ez duenean inor kontentu uzten. Nik uste dut horrelako aurreproiektu bat aurkeztekotan hobe zela ezer ez aurkeztea. Baina ez bakarrik alderdiengatik, alderdiok bakoitzak gure ikuspuntua izan dezakegu, nik uste dut hemen garrantzitsua dela biktimen inguruko elkarteek egin duten irakurketa, guda ondorengo memoria historikoaren inguruan dabiltzanak, errepublikarrenak... Hor badaude elkarte pila bat eta denei iruditu zaie oso lege txarra. Gobernuak horrelako lege bat egin nahi badu, jakin behar du hasieratik gaur egungo espainiar eskuinari ez zaiola gustatuko. Horrelako zerbait egin behar baduzu adoretzu izan behar zara. Guda garaia bizi izan zutenei horrelako lege batek mina egiten die, iruditzen zitzaaien hau zela garaia 40 urtetan jasandakoa konpentsatzeko. Beraz Gobernuak egin beharko lukeena da proiektu hori kajo batean sartu eta elkarte guztiekin hitz egiten hasi, memoria historikoaren benetako lege bat ateratzeko.

I. EGAÑA. Mingarria da, hain zuzen ere, Gobernuak elkarte guztiekin hitz egin zuelako aurreproiektu hori plazaratzeko...

M. ARANA. Hitz egin bai, Gobernu batek denekin hitz egiten du, baina hitz egiteaz aparte entzun egin behar zaie.

I. EGAÑA. Hori da. Nik uste dut eman diren urrats gehienak bide okerretik emandako urratsak izan direla. Adibide ugari daude, esaterako, CNT sindikatua oraindik epaitegietan dago kendu ziotena berreskuratzeke, Eusko Jaurilaritza Parisko egoitzaren kontuarekin ere oraindik epaitegietan dago, zenbait alderdik oraindik ez dute Bigarren Errepublikako beren onda-

rea berreskuratu... hori alde batetik. Bestetik, trantsizioa egin zen egin zen bezala, ez zen atzera begiratu eta horregatik orain atzera begiratu behar dugunean zenbait arazo sortzen dira. Badirudi hori horrela sinatu zela eta eskuin indarrek ulertzen dute orain ezin dela horri buruz hitz egin. Zerbait gaizki egin eta orain ondorioak jasaten ari gara.

Beste eztabaida bat Eusko Jaurlaritzak gerra garaiko biktimak laguntzeko dekretuarekin sortu da. Hainbat elkar-te ez daude ados dirulaguntza horiekin, zenbait jende kanpoan uzten dutela esan izan dute. Zer iritzi duzue horren inguruan?

M. ARANA. Argi dago zenbait akats egin genituela, uste dut ez duela batere zentzurik orain dena perfektu egin genuela esateak, eta hasi behar gara akats horiek onartzen. Hasierako dekretua plazaratu genuenean zenbait kalkulu gaizki egin genituen: diruaren ikuspegitik, epeen ikuspegitik, dokumentuen aldetik... Baina bestetik, esan beharra dago Eusko Jaurlaritza administrazio bat dela, eta prozedura administrazioaren Legeari lotuta dagoela, eta beraz, guk dekretu bat egiten dugunean prozedura hori errespetatu behar dugula. Alde horretatik, norbaitek bere garaian askatasun gabezia jasan zuela frogatu ahal izateko dokumentazio ofizial bat behar dugu, hori ezinbestekoa da. Sartu zaitezke beste froga batzuekin, ahozkoak adibidez, baina garbi dagoena da arazo handiak ekar ditzakeela horrek eta epaitegietan bukatu dezakezula. Beraz, egia da hasieran gauzak gaizki egin genituela baina gero saiatu ginen horiek zuzentzen: epeak luzatu genituen, batailoi disziplinarioetan egon zirenak onartu genituen, Aranzadirekin eta Defentsa Ministerioarekin hitzarmena sinatu genuen dokumentazioa aurkitzeko... Denbora pasatu ahala zuzendu ditugu aurkitu ditugun akatsak; ez dut esaten orain erabat konpondu direnik, baizik eta saiatu gara interpretazio zabalak egiten. Nik uste dut prozesuaren bukaera gaudela eta orokorrean egin beharreko irakurketa ez dela hasieran zirudien bezain irakurketa kritikoa. Gusatuko litzaidake esatea hiru urte geroago gauzak bere onera ekarri direla, ez da izango gure gestioaren elementurik distiratsuna, baina intentzioa ona zen eta saiatu gara eman ziren akatsak zuzentzen.

I. EGAÑA. *On eta off.* Alde onak eta alde txarrak. Alde onekin hasita, Jaurlaritza da Estatuko erkidego bakarra desagertuen inguruan lan hori egiten ari dena, Katalunian zerbait egiten hasi dira, baina bestela ez du inork ezer egin. Nik esango nuke alde horretatik Jaurlaritzaren ibilbidea nabarmena izan dela, eta konparatzeko badaukagu ondoko Gobernuak, Nafarroakoa: ez du zentimo bat bera ere jarri. Bestetik 8.000tik gora eskaera egin dituzte, eta Jaurlaritzak eman duen dirua eta Kataluniako Generalitateak eman duena antzekoak dira, ez diru kopuru aldetik, Jaurlaritzak askoz gehiago eman du alde horretatik, baizik eta portzentai aldetik. Katalunian bi eskaeratik batek jaso du dirua. Niretzako sortu diren iskanbilen zati handi bat izan daiteke diru kopuruarena, diru asko baita. Esan nahi dut, Katalunian askoz gutxiago ematen dute, 1.200 euro inguru, eta Eusko Jaurlaritzak bataz beste 9.000 euro ematen du. Hori diru asko da eta kontuan hartzekoa da. Horretaz gain, kontuan eduki behar da biktima guzti hauek instituzio baten eraginaren ondorio izan zirela, garai bateko estatu frankistak zigortu zituen, eta 70 urte pasa eta gero beste instituzio batek beren memoria erreku-peratu du eta zigorrei indemnizazio bat eman die, hori oso alde ona da. Alde ez hain onak: Nire ustez Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaien arlokoak baino, Justizia sailko kontuak izan behar lirateke hauek. Epekin ere ez da asmatu, dekretu bidez jolastu da eta horrek haserre sortu du, gizarteari transmititutako mezua izan da epe bat dagoela dokumentuak aurkezteko eta epe kanpo aurkezten badira ezezkoko jasoko dutela, horrek haserre piztu du zenbait elkartetan. Eredua Kataluniako Generalitatekoa izan daiteke, hau da, bulego bat ireki gerra kontu guztietaz aritzeko. 70 urte isiltasunean egon dira, zertarako jarri epeak?

I. GOIOGANA. Nik kasu bi ezagutu ditut. Niregana emakume bat etorri zen, bere aita eta aitaginarreba preso egon zirela-eta laguntza eske, eta nik laguntza eman nion. Argi eta garbi uste nuen eskubidea bazutela dirulaguntzak jasotzeko, egin genituen eskabideen arabera, baina erantzuna ezezkoko izan zen, nahiz eta gero lortu zuten. Pertsona hura gehien molestatu zuena izan zen, batailoi disziplinario batean egon eta soldadutza egiten aritu zirela esatea. Nik uste kasu honetan txartoen eraman dena formak izan direla. Jendea hasieran asko poztu zen dekretu horrekin eta gero ez zuten gai honek merezi duen sentiberatasun guztia-



rekin eraman, horrek mindu egin zuen asko eta asko. Azkenean, jendeak mina hartu du formengatik.

M. ARANA. Erantzun pare bat eman nahi nituzke, besterik gabe. Gizarte Gaietako sailburuordetzak hartu zuen eginkizun hau, Justizia sailak aurretik ere horrelako ekimenik aurkeztu ez zuelako. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila heldu zen arte inork ez zuen horrelako proposamenik egin. Eta formen inguruan esan behar da oso zaila dela 8.000 eskari dituzunean formen ikuspuntutik legalitatea betetzea eta forma horiek modu txukunean mantentzea. Gu gure gutunetan saiatu ginena esaten izan zen "ez dugu zalantzan jartzen zuk diozuna gertatu zenik, preso egon zinela, baina daukagun dokumentazioarekin eta daukagun denborarekin, arrazoia indemnitzazioa emateko da A, B edo D", nik ulertzen dut, pertsona batek pasatu baditu hiru urte preso, "A, B, D" batek mina egitea, baina hori da prozedura...

I. GOIOGANA. Ez naiz hori leporatzen ari, nik diodana da jendeak hori ikusi duela. Nik ez diot, legea

ez zenutenik bete, ez diot borondate onez ez zenutenik jokatu, ez txarto egin zenutenik... Nik diodana da, kanpotik ikusi dudanaren arabera, biktimek hasieran hartu dutela errekonozimendu modura eta gero jaso duten erantzuna beste modu batekoa izan dela.

I. EGAÑA. Bai, erantzunak oso hotzak izan dira eta horrek mina egiten du... eta zuk aipatutako bi kasu horiekin zer gertatu zen?

I. GOIOGANA. Bi kasuak antzekoak ziren. Bartzelonatik 39ko abuztuan idatzi zuten Lekeitioko Udaltxera, "honako hau hemen daukagu" esanez eta txosten bat egiteko, Udalaren erantzuna izan zen gerran batailo batean ibili zela Bilbon harrapatu zuten arte, gero Logroñora eraman zuten eta harrezkero ez dakigu ezer. Eskaera egin eta erantzuna izan zen: "ez daukagu zehaztasunik zenbat denbora egon den preso". Egia da, administrazioak egia dio, badakigu preso hartu zutela egun honetan eta gero preso zegoela handik urte eta erdira, ez dakigu bitartean oporretan egon zen, baina denok dakigu ez dela horrela.

“**G**obernuak horrelako lege bat egin behar badu, jakin behar du hasieratik espainiar eskuinari ez zaiola gustatuko. Guda garaia bizi izan zutenei iruditzen zitzaien hau zela garaia 40 urtean jasandakoa konpentsatzeko. Beraz Gobernuak egin beharko lukeena da proiektu hori kajoi batean sartu eta elkarte guztiekin hitz egiten hasi, memoria historikoaren benetako lege bat ateratzeko”

MIKEL ARANA

I. EGAÑA. Bi modelo daude, Jaurlaritzak bat hartu zuen eta Generalitateak bestea. Jaurlaritzak zein? Biktimak edo kartzelatik pasatakoak dokumentazioa eraman behar zuela. Generalitateak kontrakoa, nortasun agiriaren fotokopia bat bidali eta Generalitateak dokumentazioa bilatzen zuen; alde handia dago bata bestearekin konparatuta. Beste kontu bat oso garrantzitsua izan da, Generalitatearen dekretuaren arabera, demostratuko bazenu kartzelan egon zinela, egun bakarra izanagatik ere, kobratuko zenuen, eta Jaurlaritzan sei hilabeteko kartzela alditik aurrera kobratzen zuten biktimek. Gu Ferrolen izan gara, besteak beste eta han milaka txosten fotokopiatu ditugu, beste artxibo batzuetan berriz oztupoak izan ditugu.

Garbi geratu da dirulaguntza jasotzeko dokumentazioa izatea garrantzitsua dela...

I. EGAÑA. Barkatu, horrekin lotuta, nik uste dut dokumentazioaren arloan Jaurlaritza oso zorrotza izan dela, zenbait iturri alboratu egin dituela.

M. ARANA. Baztertu izan duguna ahozko deklarazioa da, batez ere diru asko ez delako. Egiten badugu

konparazioa Katalunia eta Eusko Jaurlaritzaren inguruan, kontuan eduki behar da diru kopuruak oso ezberdinak direla, hor baliabideen arazoa ere bada-go. Norbaitek ahozko adierazpena egiten badu 9.000 euro jokoan daudenean, ez dut zalantzan jartzen gehiengo zabal batek zintzotasunez jokatu lukeela, baina badira gutxi batzuk zintzotasunez jokatzeko ez dutenak.. Horrelako egoeran ahozko frogak oso ahula da eta seguruena errekurso baten aurrean tribunaletan ez luke batere baliorik izango.

Dokumentuekin ari ginen. Aipatu duzu, Egaña, oztupoak izan dituzuela artxiboetan...

I. EGAÑA. Iturriak artxibo ezberdinak izan dira. Artxibo militarrek alde batetik, Ferrolen eta Guadalajaran; bestetik Alcala de Henaresko Administrazioaren artxibo barruan "Zigortuen" funtsa dago, kartzelatik pasatutakoen fitxa guztiak hor daude, baina orain arte ireki gabeko artxiboa da, ez digute baimenik eman. Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatu genuen arren oztupoak ditugu; hala ere, pentsatzen dut aurten baimena emango digutela. Horrekin, behingoz amaitutzat emango genuke kartzelatik pasatutakoen kasua. Barne Ministerioari artxiboak ere badaude; guk zenbait presondegitakoak ikertu ditugu: Ondarretakoa, Saturrarangoa, Tolosakoa, Azpeitiakoa, Larrinagakoa... eta harrera ona izan genuen hasiera batean, baina orain etenaldia egon da, Memoria Historikoaren Legearen aurre-proiektua parlamentura eraman zutenetik oztupoak berriz hasi dira eta adibide nabarmena da Langraitzeko kartzela, ez baitigute baimenik eman.

I. GOIOGANA. Nik ulertzen ez dudana, edo onartzen ez dudana da artxiboak ixtea. Batean bai, bestean ez... eta dena norbait ez zaiolako gustatzen kontu hau, edo goitik agindu diotelako... hori onartezina da.

I. EGAÑA. Gainera, Legea aurrera aterako balitz funtzionario baten esku egongo ginateke eta funtzionario horrek erabakiko luke ea eskatzen dugun dokumentua bidezko den ala ez, gaur egun arte arazorik gabe erabili ditugun dokumentuak izan arren.

M. ARANA. Memoria historikoaren berreskurapena ekiditeko modurik errazena hau da, artxiboen ingu-

ruan zailtasunak jartzea, eta hori guztiz onartezina da. Lehenago aipatu dugun Dekretoaren harira, artxiboetatik izan ditugu erantzun asko *"no consta"* esanez, gero jendea bidali dokumentazio horren bila eta egiazki dokumentazioa bertan dagoela frogatu dugu...

I. EGAÑA. *"No consta"* horrekin lotuta, Lauaxetaren espedientea da nabarmenena, jende asko joan da Ferrolera Lauaxetaren espedientearen bila eta *"no consta"* esan diote; gu han izan ginen urte eta erdiz dena fotokopiatzen eta halako batean azaldu zen, eta bere izenarekin!

I. GOIOGANA. Sarritan ez da ukatzeagatik, baizik eta utzikeriagatik. Artxiboak zabalik egotea da bat, eta beste bat da antolatuta egotea, zeren eta artxiboak dira ikaragarritzko paper pila, meta izugarri batzuk... ez badago aurretik inongo lanik eginda, zer egingo duzu zuk? Han paper bat aurkitzea da...

I. EGAÑA. Espainiako artxiboen egoera lotsagarria da. Esate baterako, gaur egun Ingalaterran XX. mendeko gerra guztietan hildakoen fitxa guztiak Internet bidez kontsultatu daitezke, Espainiako artxiboak aldiz, XVIII. mendean daude oraindik.

I. GOIOGANA. Hala ere, badaude artxibo batzuk ez direnak batere ikertu, udaletxeetakoak. Dokumentazio asko egon daiteke bertan; udalak ziren, azken finean, soldadutza kontuak eramaten zituztenak eta gerrako langile batailoioak soldadutza kontsideratzen ziren. Hor daude ihesi joandakoen espedienteak, milaka eta milaka. Lekeitioko kasuan herriko asko eta askoren txostenak hor ditugu, eta hor daude Franco hil zenean erre ez zituztelako! izan ere, badakit herri batzuetan erre egin zituztela! ilea moztu, olio edan arazi, edo etxetik bota... hori guztia ez dakit azalduko den, baina horietako asko udaletxeetan aurki daitezke.

Hori frogatu daiteke? Adibidez ilea moztu edo olio edan arazi zietela batzuei, dokumentazioarekin frogatu daiteke hori?

I. EGAÑA. Frogatu daiteke, baina sutara eraman dituzten hainbat dokumenturekin. Hala ere, bere garaian

“Jaurlaritzako Gizarte Gaien arlokoa baino, Justizia Sailekoa izan behar luke (gerra garaiko biktimak laguntzeko dekretuak). Epeekin ere ez da asmatu, eta horrek haserrea sortu du, gizarteari transmititutako mezua izan da epe bat dagoela dokumentuak aurkezteko eta epez kanpo aurkezten badira ezezkoa jasoko duela”

IÑAKI EGAÑA

orrazketa handia egin zuten arren, oraindik fitxa asko aurkitu ditzakezu, eta fitxa horietan azaltzen da funtzionarioaren izena, dokumentua zertaz ari den eta funtzionario horren esaldi bat: *"destruir"* edo *"no destruir"*, horrelako asko aurkitzen dituzu gaur egun, Martin Villaren garaikoak hain zuzen ere. Bestetik, zauriarena aipatzerakoan, agian udaletxeetan aurkitutako horretan egon daiteke gakoa, herri txikietan, kasu batzuetan borreroaren izena ere azaltzen baita...

I. GOIOGANA. Nik orain dela hogeitau urte, kasu bat entzun nuen, Andaluzia inguruan, maisu bati gerra denboran lanpostua kendu zioten. Bada, salaketa jarri zionaren alaba ezkondu zen maisu horren semearekin, maisu horrek ez zekien nork salatu zuen... Hortik urte batzuetara txostena eskatu zuenean ez zioten eman, horren etxean beste gerra bat hasiko litzateke! Nik kasua kontatzen dut, gero zer egin beharko litzatekeen... Baina horrelakoak herri txiki guztietan azaltzen dira, horrelako eskabide bat udaletxeari egiten zitzaionean, informazioa ematen ziona bere auzokoa zen!

Horrekin jarraituz... epairik gabe fusilatu zituzten horien inguruan bada-go dokumentazioa aurkitzerik? Desagerarazi dute?

I. EGAÑA. 1936ko uda eta udazkeneko epaiketetaz ez dago ia ezer. Dena den, nik ez dut uste epaitu

“**S**enarrak edo osabak egongo ziren kartzelan, baina etxean geratu zirenek, emakumeek adibidez, askotan txartoago pasa zuten eta horretaz berba egin beharko da...”

IÑAKI GOIOGANA

zituztenik ere... Gu artxibo militarretan egon gara eta militarrek dena gordetzen dute, astakeriak ikusiko dituzu, Lauaxetarena adibidez, baina dena jartzen du. Beste kasu horietan aldiz...

I. GOIOGANA. Arrastoak bai badaude, ez dakigu non fusilatu zituzten, nola egin zuten... hori guztia ez, baina pertsona hori nonbait biziko zen. Arrastoak batzen eta batzen ez duzu argazki guztia osatuko, baina zerbait antzekoa bai.

I. EGAÑA. Herri txikia gara eta azkenean arrastoak aurkitzen dituzu. Abiapuntua 1939an ELA sindikatuak egin zituen lehenengo zerrendak izan ziren. Gero egon ziren beste saiakera batzuk eta azken urte hauek joera hori zabaldu da. Eredua izan daiteke Nafarroan Altafayllak egindakoa, baina herriz herri, toki askotan saiatu dira epaiketarik gabe fusilatutakoen zerrenda horiek osatzen...

Puzblea osatu behar da azken finean. Aurrera jarraituz, esan dezakegu ahalgin bat egin dela memoria historikoaren inguruan eta hori gizarteratzeko tresna garrantzitsu bat hezkuntza izan da. Nola ikusten duzue? Egin da egin beharko litzatekeen bezain beste..

M. ARANA. Ikusten dituzu hamabost urteko neska mutilak eta askotan Franco nor izan zen ez dakite, eta hemen 40 urtetan diktadura bat egon zela ere ez dakite. Denak dakite Bigarren Mundu Gerran zer gertatu zen eta naziek juduekin egin zutena ere bai,



baina Estatuari buruz... inoiz ez dugu aukerarik izan ezer ikasteko. Eta jakin dituzun gauzak, kasu gehienetan etxetik dakizkizu.

I. GOIOGANA. Eta hori kontatu dutenean! Orain dela urte pare bat TVEn eman zuten dokumental bat gai honen gainekoa. Uste dut Extremaduran zela, herri batean bazegoen monolito bat “*Caídos por Dios y por España*” jartzen zuen eta herri hartan zer gertatu zen kontatzen ziharduten nagusiak gazteei; esaten zieten “begira, honek salatu zuen zuen aitona, eta egin zioten honako eta halako”, baina gazte horrek ez zuen bere aitonari egin ziotenaren berri eta ez zekien monolitoa zer zen ere! Hori seguruena denon errua da, ez dakit nola transmititzen dugun gure iragana, seguruena gaizki.

I. EGAÑA. Ni ez naiz deabruaren abokatua izango, baina alde batetik errepresio latza eta ezkutatzeko nahia dago; bestetik, askotan ahazten dugu anai arteko gerra izan zela gerra zibila, Euskal Herrian ere bai. hitzaldietan jendeak hori eztabaidatzen du... baina nik oso argi daukat, gerra zibila izan zen, Euskal



Herrian ere bai! Eta horrek baditu ondorioak eta zailtasunak, eta hori ulertu behar da.

M. ARANA. Bai, baina bakoitzaren familian gertatu denaz aparte, nik uste dut funtsezkoa dela eskolatan azaltzea XX. mendean Espainian zer gertatu zen...

70. urteurrena dela-eta, gerrako biktimen errekonozimendu ekitaldi asko egin dira. Horien inguruan zer iritzi duzue? Beharrezkoak dira? Zerbait aldaturiko zenukete?

I. EGAÑA. Nik esango nuke batzuk beharrezkoak zirela, gehienak berandu egin dira eta kontu gazi-goak izan dira gainera. Eta aldatu? Askotan iruditu zait gune alderdikoi bihurtu direla, eta askotan esan dut, horiek denok elkartzeko tokiak direla. Garai batean, denok dakigun bezala, errepublikaren aldeko alderdi eta sindikatu guztiak batu ziren eta gaur egun hau izan zitekeen gune bat berriz ere denok elkartzeko eta gizartearen irakurketa historiko bateratu bat egiteko.

I. GOIOGANA. Gertatzen dena da, ekitaldi horiek egin izan direla leku ofizialetatik deituta eta gure leku ofizialak, beharbada, marka politiko handiegia dute. Egin izan balira ez hain leku ofizialetatik edo denon onarpen zabalagoa duen erakunderen batetik, beharbada beste modu batera jokatuko genuke. Ni ez nago alderdi batek edo sindikatu batek beren hildakoak edo errepresaliatuak omentzearen kontra, baina sarritan ekitaldiak egiten dira denentzako, baina denentzako egin gabe.

M. ARANA. Ez nago ados aipatu duzuenarekin. Herri honetan edozein instituziok antolatzen duen edozein ekitaldi, ekitaldi alderdikoi bezala ulertzen da, instituzio horrek alderdi bat duelako atzean. Nik ez dut uste kasu honetan hori horrela izan denik. Bilbon, adibidez, Eusko Jaurlaritzak antolatutako omenaldi bat egin zitzaion gerrako biktimei, eta alderdi guztiak egon ziren! Horrelako ekitaldi bat antolatzen bada eta alderdietako ordezkariak hor badaude, eta elkarteetako ordezkariak ere hor badaude, eta jendea hor badago... alderdikeria non dago?

I. EGAÑA. Nik alderdikeria ekitaldi batzuetan dagoe-la esan dut. Beste adibide bat jarriko dizut: Zuri ez zaizu iruditzen itsusikeria bat dela Matxitxakoko batailari buruzko bi omenaldi egotea, bat EAK antolatua eta hurrengo egunean EAJk? Hori denon artean antolatu beharreko ekitaldi bat da.

I. GOIOGANA: Nik ez dut administrazioaren kontra jo nahi, izan ere, administrazioa kritikatzan denean alderdikeriaz jokatzan duela esanez, behar bada kritika hori da alderdikeria bat.

Memoria historikoaz hitz egitean badaude talde ikusezin batzuk, gerra galdu zuten horiek baino ikusezinagoak: talde etniko minoritarioak, emakumezkoak...

I. GOIOGANA. Etxean geratu zirenak, emakumeak adibidez, senarrak edo osabak egongo ziren kartzelan, baina etxean geratu zirenek askotan txartoago pasa zuten eta horretaz berba egin beharko da...

M. ARANA. Homosexualek ere sufritu zuten...

“Jende asko joan da Ferrolera Lauaxetaren espedientearen bila eta *no consta* esan diote; gu han izan ginen urte eta erdiz dena fotokopiatzen eta halako batean azaldu zen, eta bere izenarekin!”

IÑAKI EGAÑA

I. EGAÑA. Bai, homosesualak Langraitzen egon ziren. Hor gertatzen da hausnarketa egiterakoan, biktima zuzenak izaten dituzula kontuan, fusilatutakoak, hildakoak... esparru horretan ibiltzen zara argiena delako, edo mingarriena. Baina noski, bigarren mailan geratzen diren kontu pila bat daude. Uste dut ikertzeko, idazteko eta tesiak egiteko gauza asko daudela.

Bukatze aldera, etorkizunari begira jarriko gara. Memoria historikoak etorkizunean zer eragin izan dezake? Gaur egun berreskuratuko dugunak era-



“M emoria historikoaren berreskurapena ekiditeko modurik errazena hau da, artxiboen inguruan zailtasunak jartzea, eta hori guztiz onartezina da”

MIKEL ARANA

gina izango du hemendik urte batzue-tako gizartean?

I. EGAÑA. Ni ezkorra naiz, gizarte ereduagatik. XXI. mendeko eta lehen munduko gizartearen bizitza aste betekoa da. Etorkizunean ez du pentsatzen, begira nola daukagun mundua! Eta etorkizunean ez badu pentsatzen are gutxiago iraganean. Alde horretatik ezkorra naiz. Baina ala eta guztiz ere ikerketa historikoak egin behar dira eta eman behar dira eman beharreko urratsak, zuhaitza aldatu behar da.

M. ARANA. Niri iruditzen zait memoria historikoaren berreskurapena erabat ezinbesteko dela eta lagunduko digula ulertzen zer geratu zen. Etorkizunari begira? Seguruena ez du eragin handirik izango. Atzetik zer pasatu den jakiteak oso gutxitan izaten du eragina aurrera begira, bestela ez lirateke XX. mendean bi Mundu Gerra izango! Nik uste dut gizarteak ikasteko oso gogo gutxi duela.

I. GOIOGANA. Horri tximeletaren teoriak erantzuten dio. Tximeleta batek hegan egiten badu alde batera edo bestera, azkenean eragina mundu guztian du. Ez dakigu, lehen Iñakik esan duen legez, ereingo dugun arbola aterako den edo ez, akaso bai, baina ez dakigu...

I. EGAÑA. Nik uste dut baietz, horregatik egiten dut lan. Hala ere, askotan esaten dugu iragana ezagutu behar dela etorkizuna ez errepikatzeko, baina askotan iragana ezagututa ere, errepikatzen dugu. ■

Egiak dakarren justizia

"Aldea dago Joseba Pagazaurtundua edo Jose Luis Lopez de la Calleren memoriak eta senideek jasotzen duten merezitako babesaren eta frankismoaren biktimek jasotzen duten ahaztearen artean"



DANI BLANCO

Xabier Lasa*

Hipokrisi politiko hutsa da oroimen historikoa berreskuratu nahi dela predikatu, eta segidan, frankismoak eragindako biktimei biktimen kondizioa bera ukatzea. Eta halakorik gertatzen ari da, zorigaitzez, gure artean.

Andoaingo herritarrek ez gara salbuespen, egunero bizi dugu bizilagun ditugun biktima ezberdinak neurri bakar batekin ez neurtu izanaren iraina. Delikatua da izen-abizenez seinalatzen hasia, are gehiago herrikideen tragediaz eta sufrikarioaz ari garenean. Baina iruditzen zait badela garaia abstrakzio ariketak alboratu eta adierazteko herrikide askok nola ikusten dugun biktimen arteko bereizkeri hori.

Gordinki bezain gardenki esanda: aldea dago, aldea dagoenez, Joseba Pagazaurtundua edo Jose Luis Lopez de la Calleren memoriak eta euren senideek jasotzen duten merezitako babesaren (politikoa, instituzionala, juridikoa, mediatikoa, ekonomikoa, morala, psikologikoa...) eta frankismoaren biktimek jasotzen duten ahaztearen artean.

Azter dezagun, esate batera, 36-39ko biktimen kolektibo anitzetik mingarriena izan zen Andoaingo fusilatu antifrankisten errealitatea. Alargun andana geratu zen miseriarik gorrienean: Manuela Pereda, Petra Garcia, Josefa Telletxea, Mari Karmen Iartza, Isabel Iartza, Rafaela Agirre, Pantxika Unanue, Benigna Gonzalez, Maria Argarate, Juana Alberro, Beatriz Arze, Valentina Carballo, Pantxika Izagirre, Antonia Melendo, Maria Garmendia, Maria Dolores Retes, Juliana Muñoz... Denek ere bi, lau, zazpi edo haur gehiagok osaturiko familia hautsiak aurrera atera behar izan zituzten, nahitaez! Agintari borrarok eza-

ritako marjinazio instituzionalaz gain, herrikide irabazleen zigorgabetasun osoko bazterkeri eta irainak jasan behar izan zituzten urtetan, alajaina!

Franco hilda, ustez orduan iritsi zitzaizen emakume horiei eta euren seme-alabei berragertze publikorako eskubidea. Baina horretan, hor non egin zuten bat batzuen eta besteen interesek. 40 urteko klandestinitatearen ondoren, boterea ukitzeko aukera ikusi zuen elite politiko berriak batetik, eta diktadura hiltzaileen zutarri izandako hainbat instituziok bestetik (klase politiko falangista, ejertzitza, justizia, monarkia, eta abar). *Anaitasunean* elkar bizitzea –boterea partekatzea, alegia– erabaki zuten bi aldeek. “*Demócratas-de-toda-la-vida*” etiketa paparrean jarri eta frankista jendilajeak egoera berrian birziklatu ahal izan zuen, eta zigorgabetasun osoz eutsi bere estatusari. Inoiz ezer gertatu ez balitz bezala. Ez da zaila asmatzen non duen iturburu Espainiako kalitate kaskarreko demokrazia honek.

Klase politiko berri horrek traizio egin zien egiari, justiziarri, eta batik bat, 36-39ko biktimei; euren guraso politiko izan zirenei, azken batean. Pantxika Unanue eta Juana Alberro, senarra erail eta aste gutxira *penak jota* hil ziren, panorama beltzak gainezka eginda. Gainerako alargunak, ordea, Franco hil ostean joan zaizkigu. Anonimaturik salagarrienean joan ere, demokrazia *eredugarri* honek hala erabaki zuelako. Nola Francoren hala trantsizio politikoaren biktima anonimo horiek ez zuten aitormen ofizial publikorik jaso, ezta inongo *demokraten* bisitatxoren bat edo esker oneko hitzerdirik ere! 9.000 pezetako pentsioa eskupeko lotsagarri gisa, ez besterik.

Maria Jesus Fernandez, Jose Aldasoro, Ixiar Irulegi, Rosario Urretabizkaia, Julia Rubio, Jone Aldaz, Anttoni Arzallus, Arantxa Aranzabal, Martin Garcia, Eulalia Izquierdo eta abar luzea, denak ere alargun horien eta fusilatu zituztenen seme-alabak, Andoainen bizi dira gurekin. Bizilagunak ditugu denak; gure bizitza frenetikoaren eten batez, aldar-tetxoa hartu, horiengana hurbildu eta bizi duten errealitatearekiko interesa erakusten badiegu, agudo asko emango digute aspalditxotik dakarten sufrimendu eta bazterkeriaren berri. Familia tragediaren kontakizunarekin batera, makina bat galdera aieratuko digute, suabe, goxo eta ahotsa goratu gabe, baina diotenaz sinetsita: non dira gutarrak, nork hil zituen, zergatik...

Galdera horiek ere gurekin, Andoaingo gizartean bizi dira. Alabaina, 30 urteko demokrazia ez da gauza izan erantzunik emateko, ezta saiatu ere! Atzo arte, ia 70 urtez, euren aiten borroeroekin egin behar izan dute topo. Hala ere, barru-barrutik inoiz ez zaizkie mendekua edo gorrotoa bezalako sentimenduak azaleratzen; euren ahotatik inoiz ez diegu "biziarteko kartzela zigorra" edo "ustel daitezela kartzelan" bezalako adierazpen mendekatirik aditu. Historiaren transmisioan protagonista denaren erantzukizuna beren gain hartu eta egia eta justizia eskatzen dute, ez beste kristorik. Herrikide horiena da, inorena izatekotan ere, biktima batengandik espero den jokabide eredugarria.

2006a Memoriaren urtea izendatu eta dekretu, omenaldi, monumentu jartze eta bestelako ekitaldiak

antolatzeko sukarra piztu zaie orain instituzioei. Ongietorri bitez, guztiak; baina gogoratu beharko zaie, oroimen historikoaren berreskurapena hori baino gauza konplexuagoa dela. Begi-bistan agertzen zaizkigun adibide ilustragarriak, kritikagarriak baitira guztiz.

Baztertzaille, iraingarri eta propagandistikoak dira Madrazorenak bezalako dekretuak, frankismoko biktimei biktimak direla justifika dezaten exijitu eta gero, 10 biktima-eskatzaitetik 8ri ezezkoa erantzuten dien une beretik. Zapateroren lege egitasmoak, herriz, trantsizioko amnesia eta amaiera puntua betirako ezarri nahi ditu; besteak beste, desagertuei buruz nazioarteko legediak ezartzen duenari uko egiten diolako, eta egia jakitea familiarren eta herri ekimenaren esku uzten segitzen duelako.

Gasteizko hirukoak antolatzen dituen omenaldiak ere folklore hutsera murrizten dira; politikoek, monumentuak eta biktimen senideek bilduta osatzen den argazki mediatikoak epe motzeko etekin publizitarioaren printzipioa betetzen du erabat. Ekitaldi horietan fusilatu eta desagertuen senideak elementu apaingarri gisa erabiltzen dira. Ez zaie hitza ematen eta ez zaie galdetzen, oso berandu iristen den merezitako oroitarriaz gain, ea ezer gehiago nahi duten. Ez dituzte, azken batean, biktimatzat jotzen. Museoko pieza gisa hartzen dituzte ia, pentsatzeko edo proposamenak plazaratzeko gaitasunik ez duten arimak edo bihozgabeak balira bezala.

Gizarte honi irakaspenik emateko ez dauden aspaldiko xaharrak aspaldiko kontuekin... interesik ba al dute, baina? Horiekin egoteko aldartea hartu duena berehala ohartuko da zein minduta dauden komunikabideekin, epaileekin... baina batik bat politikoekin. Agudo antzemango baitie justizia ari direla aldarrikatzen hitzetik hortzera; 36-39ko biktima bati ere zor zaizkion errespetua eta esku-bideak ukatzen dizkietela. Sufrimenduaren monopolioa ezartzen dutela euren kaltetan... Suabe, goxo eta ahotsa goratu gabe adierazten dute gutzia. Baina esaten dutenaz sinetsita.

** 36ko biktimen aldeko Oroituz, Andoainen herri ekimeneko kidea*



KUTXA FOTOTEKA

"Hipokrisi politiko hutsa da oroimen historikoa berreskuratu nahi dela predikatu, eta segidan, frankismoak eragindako biktimei biktimen kondizioa bera ukatzea".

Memoria eta Historia. Bi errealitate

"Behar-beharrezkoa dugu memoria berreskuratzeko ahaleginen eta historiografiaren arteko aldeak gainditzea, biktimen eta senitartekoen eskariei batera erantzuteko"



Pedro Barruso Barés*

Memoria berreskuratzearen aldeko gizarte mugimendua indartsu agertu da azkenaldian Espainiako gizartean, dudarik gabe. Bat baino gehiago harrituko zen, beharbada, hartu duen garrantzia ikusita. Baina hainbat argudiok azaltzen dute fenomeno hori, eta arruntagoa egiten.

Esan dezagun, ezer baino lehen, memoria berreskuratzeko prozesua –"historikoa" adjektibo kalifikatzailea eztabaidagarria da, gero ikusiko dugunez– biktimen bilobengandik sortu dela; "biloben iraultza" ere deitu izan diote tokiren batean. Jakina, bilobek gidatu dute prozesua eta begiratu dute atzera, beraiek baitira demokrazian hazi eta hezitako lehen belaunaldia. Gerraren bilobok –neronek ere belaunaldi horretako partaidetzat dut neure burua– diktadura bete-betean bizi izan ez dugun lehenengoak gara, eta bere ondorioak neurri txikiagoan nozitu ditugu.

Errepresaliatuen senitartekoei zera pairatu behar izan zuten, Conxita Mir andreak, Lleidako Unibertsitateko irakasleak, "estalitako errepresioa" deitu zion hura. Ez dakigu errepresio mota hori norainokoa izan den, eta gainera, ez da osorik ikertu. Errepresaliatuen seme-alabak, hau da, gure gurasoak, gertatutakoarekiko isiltasun giroan hazi ziren, bizirauteko beharrezkoa baitzuten, ez ordea ahanztura giroan. Geroago, garapenkeriak eta Trantsizioa gizarte itunak gerorako utzi zuten gizon-emakume askoren memorian geratu zen auziari eman beharreko konponbidea. Era berean, ez da egia Trantsizioa isiltasun eta ahanzturazko itun baten gainean gauzatu zenik. Izan ere, zenbait lekutan berehala ekin zitzaion gorpuak desehorzteari: Larderon (Errioxa) 1977an eta, gertuago,

Pikoketan 1978an. Egia da, ordea, demokraziaren lehen urteetan egoera zaila zenez, auzi hori zokoratu ta geratu zela. 2000. urteko udan Priaranza del Bierzon egindako desehorzketa dira gaur egungo prozesuaren abiapuntua. Lehenengo desehorzketa haiek ez zuten azken horiek besteko oihartzuna izan komunikabideetan, baina, hala ere, haiek markatu zuten oraintsu berriz hartu den bidea.

Era berean, Trantsizioak bide eman zien historialari belaunaldi berriei –gazteei nahiz ikasketak hastear zeudenei– Gerra Zibileko aldia aztertzeari ekin ziezaioten. Informazio iturrietara iristeko zailtasun askori egin behar izan zieten aurre, baina agerian utzi zuten frankismoak eragindako errepresio basatia. Historiografia horri esker, memoria azaleratuz joan zen, eta pixkanaka memoria berreskuratzeko prozesuari ekiten beharrezko baldintzak sortu ziren. Berreskuratze horren alderdirik aipagarriena zera izan da, lurpetik atera zirela, Espainiako geografia osoan zehar, Gerra Zibilean eraildako jendearen hainbat eta hainbat gorpuak.

Memoria berreskuratzea ekarri duen prozesu hori historiografiarekin batera gertatu da eta hainbat kontraste sortu du. Lehenik, eta kontzeptuari dagokionean, ez dut uste guztiz zuzena denik "memoria historikoa" berreskuratzeaz hitz egitea. Memoria terminoa beti mintzo zaigu iraganaz, eta, beraz, alferrikakoa da historikoa adjektiboa. Bestetik, gizabanakoaren egitate gisara eta pertsona baten iraganari lotua egonik, subjektibotasun karga handia du eta memoria kolektiboko prozesu bilaka daiteke, hainbat esperientzia komun dituen jendeak osatutako memo-

ria, alegia. Hortaz, “gerra zibileko memoriaz” edo “frankismoko memoriaz” hitz egin dezakegu, eta gaur egungo prozesuaren abiapuntutzat hartu.

Memoria osagai garrantzitsua da Historiaren erai-kuntzan, baina horrek ez du esan nahi hura bat-batean eta automatikoki Historia bilakatzen denik. Julio Arostegi irakasleak adierazi zuen bezala, historia bilaka dadin, “objektibatze” prozesu bat behar du memoriak, gutxieneko bermeeekin erabili ahal izateko. Gogoratu beharra daukagu, Historiaren xedea askotariko iturrietatik abiatuz (dokumentuak, idazkiak, ahozkoak edo beste era batekoak) interpretazio eredu orokorra sortzea dela, hala, gizarte jakin baten prozesu historikoa azaltzeko. Bere helburuak, beraz, memoria berreskuratzea baino zabalagoak dira.

Horrekin zera esan nahi dugu, bi prozesu ditugula aurrean, ezberdinak baina ez kontraesankorrak. Izan ere, bada memoria izaterik Historiarik gabe, baina ez alderantziz. Memoria berreskuratzeke prozesuan lanean ari diren pertsona edo talde jakin batzuek, beharbada, kontzeptuzko errealitate hori oker haute-

mateagatik kritikatzeko dituzte “historialari profesionalak” –profesional izendapena ere gutxietsi nahian–.

Haien lanari meriturik eta garrantzirik kendu gabe, argi esan behar da historiografiarekiko metodologia eta helburu ezberdinak dituela. Lan eta ikerketa horiek garrantzizkoak dira analisi historiko egokia egin ahal izateko. Baina beste gauza bat ere izan behar dugu kontuan: memoria berreskuratzeke gaur egungo prozesuetan, analisi kolektiboari kontrajarri egiten zaio mikrohistoria, eta eredu orokorrari kasu partikularren usteko salbuespenezko izaera. Horien ondoriozko eredu historikoa desitxuratzeko arriskua daukagu, usteko berezitasunak indartzen saiatzerakoan; izan ere, berezitasun horiek bitxitasun balira ere, ez lirateke interpretazio orokorraren baitan oharkabea igaroko. Bestetik, memoria berreskuratzeke prozesuak helburu mugatuak ditu, nahiz eta izan badiren salbuespenak, gero eta gehiago, zorionez. Hala ere, gehienetan, egoera zehatz eta banakakoei erantzuten zaie soilik, errepresio frankistak izan zituen askotariko aurpegiak albo batera utziz.

Beraz, bi errealitate ezberdin ditugu aurrean, baina inola ere ez kontrajarriak. Historialari bat murgil daiteke memoria berreskuratzeke egitasmo zabalago batean, metodologia egitasmo zehatz baten barruan, eta, aldi berean, eredu orokor edo tokiko eredu bat sortzen parte hartu. Modu berean, memoria berreskuratzeke lanean ari den talde batek ere zabal ditzake bere helburuak, eta eremu jakin batean gertatutakoari azalpen orokorra ematen saiatu.

Behar-beharrezkoa dugu, beraz, memoria berreskuratzeke ahaleginen eta historiografiaren arteko aldeak gainditzea, biktimen eta haien senitartekoen eskariei erantzungo dien prozesu bateratua elkarrekin lantzeko. Pertsona horien eskubideak gailendu behar dira prozesuan. Bai elkarte eta taldeek -dituzten askotariko helburuak errespetatuz-, bai historialariek indarrak bateratu behar dituzte, arazo horiei erantzun sendoa emateko eta administrazioei guztien itxaropenak asebeteko dituen konponbidea exijitzeko.



Hernaniko hilerrian, 36ko Gerrako biktimak gogoratzen.

**Historian doktorea.
Irakaskuntza Ertaineko irakasle titularra*

Gerra Zibilaz eta oroimenaz. Ertzaskotako auzia

"Askorentzat, kartzelan, erbestean, lan batailoietan pairatutakoaren ondoren, nahiko agiririk ez zutelako zegokien indemnizazioa ukatzea oso latza izan da"



Josu Chueca*

Pierre Vilarrek edo gertuago genuen Jose Maria Jimeno Juriok burua altxatuko balute, oroimen historikoak hartu duen gaurkotasun eta indarraz sinesteko zaila izanen zuten. Biak garai desberdinetan eta talai urrunetatik Gerra Zibilaren ikerlanetan eta haren gaineko memoria historikoan aitzindari bakartiak izan zirelako, harriduraz eta pozez ikusiko zuten giza mugimendu baten antza hartu duen esparru historiko horren garapen ikaragarria. Izan ere Aznaraldiko azken urteotan, Estatuko hainbat eskualdetan aurkitutako gerra garaiko hilobiek eta Katalunian, Andaluzian, Gaztela Leonen... egingdako ikerketek egundoko bultzada eta entzutea eman diote gai horri.

Euskal Herrian, tokian tokiko kolektiboek (Deba Goiena, Hernani, Otxandio, Andoain...) eta, bereziki, Arantzadi elkarteak hartu dute Nafarroako Altaffayllak eta AFAN deiturikoak 80ko hamarkadan izan zuten aitzindaritzaren lekukoa. Artxibategi handi aunitzetan zeuden agiriak esku-raezinak baldin baziren ere, tokian tokiko artxibetatik, testigantzetatik, epaitegietatik eta baita kartzel eta kuarteletatik ere, gutxika-gutxika agertarazi dituzte ahanzturaren putzuan zeuden gizaki eta gertaera aunitz. Dokumentazio horren gainean zeuden mota guztietako oztopoak saihestuz, makina bat ikerketa gauzatu eta egiten ari dira egun. Horiek aurrera eramateko ahozko historia eta hedatzeko ikus-entzunezko bitarteak erabiltzen dituzte eta berrikuntzak nabariak bezain garrantzitsuak suertatzen ari dira.

Hala ere, European burutu diren ikerlanekin konparatuz gero, oso atzetik gabiltzala bistan dago. Pirinioez harantz, oroimen liburuek, ikerlan historikoek, eleberriek, ikus-entzunezko saioek eta filmek Espainiako gerrarekin hasi eta Bigarren Mundukoarekin bukatu ez zen tragediaren oroitzapena berpiztu duten bitartean, hemen abiatu besterik ez dugu egin. Azken garaietan, sarritan aipatu den arren, ez da alferrik gogoraraztea Franco hil ostean lehen aldiz II. Errepublikaz geroztik ireki zen aro historikoaren oroimena berreskuratzeke zeuden oinarrizko baldintzak ez zirela behar bezala erabili eta sendotu. Izan ere, Trantsizioa deiturikoan, diktadura frankistak gerran bertan eta ondorengo hamarkadetan egindako sarraskien kontuak eskatzea ez omen zen politikoki zuzena. Horren ondorioz, urtetan eta urtetan zehar pairatutako errepresioaren biktimak ahanzturaren zakura joan ziren eta Amnistia, gehienbat, gerra horren garaileen alde izan zen, nolabaiteko amnesia ia-ia orokorrari lagunduz. Beranduxeago etorri ziren 1978ko konstituzioa eta Artxiboetako legeriak. Horietan, hiritarrek, historiagileek eta ikertzaileek ikertzeko zituzten eskubideak aitortzen zituzten arren, ahalmen horiek gauzatzeko tenorean bideak arras zaildu eta estutu zituzten. Dena den, oztopoak oztopo, historiografia frankistak ordura arte izandako ia erabateko monopolioari aurre eginez tokian tokiko ikerlan sendoek 1936-1939ko tragediari buruzko ikuspegi berri bat azaleratu zuten. Orduz geroztik, nahiko frogantza ditugu gertatu zenaz jabetzeko. Jendeak errealita-

"Memoria Historikoaren Legea, agindu zutena baino askoz beranduago eztabaidatzeaz gain, esparru horretan lan egiten duten elkarteek proposatu zituzten egitasmoetatik urruntzen ari da, PPk moteldua"

te tragiko horietaz ederki ondo zekiena paperen gainean jartzeko.

Era berean, eremu politikotik eta instituzioetatik, berandu bada ere, azken urteotan heldu diote auzi honi hainbat ekimenen bitartez. Horrela etorri dira hainbat aitortpen, gehienetan gazi-gozaok suertatu direnak. Nafarroako Parlamentuan, esate baterako. 2002an talde politiko guztiek, UPNren salbuespenarekin, onartu zuten 1936ko altxamendu faxistaren ondorioz lurralde horretan izandako eraikidako aldeko adierazpena. Tamalez, bide malkartsutik doa baita ere Madrilgo Parlamentuan prestatzen eta eztabaidatzen ari diren Memoria Historikoaren Legea. Agindu zutena baino askoz beranduago eztabaidatzeaz gain, esparru horretan lan egiten duten elkarteek proposatu zituzten egitasmoetatik urruntzen ari da legea. Zaharrak berri hemen ere. PPk zuzenean edo zeharka aldarrikaturiko lelo politikoek baldintzatzen eta moteltzen dute PSOEak aurkeztuen duen edozein proiektu.

Euskal Erkidego Autonomoan frustrazio berdintsua dago 280/2002ko dekretuarekin, frankismoaren biktimentzako laguntzak ahalbidetu nahi zituenarekin. Borondate onarekin bultzaturiko ekimen horrek kudeaketa eztabaidatu eta gorabeheratsua izan du, biktima askorentzat egundoko zapuztea bilakatu delako. Izan ere, jende askorentzat, kartzelan, erbestean, lan batailoietan pairatutakoaren ondoren, egonaldi horien gaineko nahiko agiririk ez zutelako zegokien indemnizazioa ukatu izatea oso latza izan da. Eta ezbairik gabe, dirusariaren gaintetik, gogorrena euren iraganeko sufrimenduak ez aitortzea izan da. Indemnizazio ukazio ugari horiek agerian utzi dute berriro artxibategien egoe-

ra xelebrea. Historiagileen aldetik ezaguna baina behar zen bezala salatu ez dena. Edozein ikerlarik daki zer gaitz den garai eta arazo horretaz lan historikoak aurrera eramatea, baldin eta Espainian dagoen artxiboen gaineko legeria ez bada aldatzen. Dokumentazioa ikusteko dauden epe mugak Europako handienetakoak (50 urtekoak) izateaz gain, erabateko arbitrariotasuna nagusitzen da kasu askotan dokumentazioa eskuragarri jartzeko. Bestalde, agiri multzo handiak dituzten kuartel, kartzela, gobernu zibil eta epaitegiak erabilezinak dira, urtetan metatu den dokumentazio ugari dagoen egoerari erabilezina delako.

Nire ustez, oroimen eta ezagutza historikoaren arloetan, aurrerapenak gauzatzekotan, plan orokor eta zabala, sail desberdinetatik sustatua, bultzatu beharko lukete erakundeek, Estatukoek zein autonomikoek. Egun gobernu kontseilariak eta goi mailako politikariak burutzen dituzten ekitaldi instituzional mediatikoez, komunikazio bulegoek prestatu dizkieten diskurtsoak irakurtzeko bakarrik balio dutenak, oso bide motza dute. Hoberenean, garai batean egin ez ziren omenaldien hutsunea betetzeko balio dezakete. Gehienetan, hurrengo goizean komunikabideetan oihartzun apala izateko. Askoz sakonagoa eta eraginkorragoa izanen zen ikerketa eta zabaltze lanak burutzen laguntzea. Iraupen gutxiko urtemugetako ospakizunetatik askoz urrunago joanez eguneroko lan historikoak bermatzea. Horrela, ahanzturaren lainoetatik, milaka gizaki eta gertaera historiaren argitara igaro daitezke; horrela, oroimen historikoa oinarri sendoen gainean indartu eta zabal daiteke.

** Historialaria eta EHUko irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.077. zenbakiarekin banatua, 2007ko otsailaren 25ean)